

UDALERAKO PROGRAMA BATERATUA AURKEZTU DUTE EA-EAJ ETA EBK

EA-EAJk 7 Batzorde izango ditu eta EBk 4

■ Hilabetetako lanaren ondoren lortu dute Udal programa bateratua eta legegintzaldirako akordioa, EA-EAJ eta EBk atzo prentsaurrean azaldu zuten.

■ Hiru helburu ditu akordioak EA-EAJ eta EBko ordezkarien hitzetan: "Herriko parte hartzea bultzatzea, integrazioa bultzatzea eta indarkeriako jarrera eta jokaerak ezabatzea".

■ Batzordeen banaketan, EA-EAJko ordezkariak zazpi batzordetan izango dira buru (Ongintza eta Kirol Patronatuak barne) eta EBko ordezkariak lau batzordetan.

ATZO aurkeztu zuten prentsaurrean datorren legegintzaldirako akordioa eta Udal Programa bateratua EA-EAJ koalizioak eta EB alderdiak. Joxan Rekondo Alkateak hitz egin zuen Gobernu Taldearen izenean eta esan zuen Udal hauteskundeek 3 bloke nabarmendu dituztela Hernanin: "batetik Euskal Gobernu eta Parlamentua babesten dugun Alderdiak, EA, EAJ eta EB, eta botoen % 40 lortu dugu; bestetik, haustura politikoa bilatzen duen ezker abertzaleko blokea, eta hor dago Bildu Hernani, botoen % 37ekin, eta ilegalizatu egin dituzten ez dute ordezkariarik Udaletxean; eta azkenik, Euskal Gobernuarekin enfrontatuta dauden Konstituzionalistak, hor daude PSE-EE eta PP eta boto gutxiago dute hauek". Rekondoren hitzetan emaitza hauek herriaren pluraltasuna

nabarmendu dute eta Hernaniko herriek dei egin die Alderdiei elkarriketarako.

Hiru helburu nagusi

Akordioa hiru helburu nagusiren bueltan lortu dute, prentsaurrean esandakoaren arabera.

1) Herriko parte hartzea bultzatzea: herriko proiektuetan, aurrekontuak egitean eta abarrean herritarren parte hartzea bultzatzea esan zuten. Udal ordezkariak gabe gelditu diren 3.600 herritarrei parte hartzeko aukera ematea nahi da batetik, eta mehatxatuta dauden zinegotziak lan egiteko aukera izatea bestetik, Udal akordioak dioenez.


2) Integrazioa eta pluraltasuna bultzatzea.

3) Udalak konpromisoa hartzea indarkeriazko jarrera eta jokabideak ezabatzeko.

Hamaika Batzorde


Akordioa aurrera eramateko Udal Programa egin du Gobernu taldeak eta 11 Batzordetan gauzatu dute. EA-EAJk Hazienda eta Ondarea, Zerbitzu Publikoak, Osasun eta Gizarte Ongintza, Hirigintza eta Ingurugiroa, Obra Publikoak eta Pertsonala eta Udaltzaingoa egingo du buru eta baita Ongintza Patronatua eta Kirol Patronatua ere. EB Alderdiak, berriz, Hezkuntza, Formazioa eta Lana; Etxebizitza eta Gizarte gaiak; Kultura, Gaztedia eta Kontsumoa; eta Euskera Batzordeetan egingo du buru.

Batzordeetan zenbait aldaketa izan dira: Obra publiko Batzordea berria da, Hirigintza eta Zerbitzu publikoetan txertatua baitzegoen lehen eta Etxebizitza eta gizarte gaien Batzordea sortu dute aurten. □



Joxan Rekondo erdian, Andoni Amonarraiz eskubian eta Txema Mercado ezkerrean, atzo prentsaurrean.

BATZORDE ETA PATRONATUETAKO BURUAK



JOXAN REKONDO
(EA-EAJ)

- Hazienda eta Ondarea



ANDONI AMONARRAIZ
(EA-EAJ)

- Zerbitzu Publikoak
- Osasun eta Gizarte Ongintza Patronatua




IÑAKI ARRATIBEL
(EA-EAJ)

- Hirigintza eta Ingurugiroa




IÑAKI BARRIO
(EA-EAJ)

- Kirol Patronatua



ANTTON COSTA
(EA-EAJ)

- Pertsonala eta Udaltzaingoa



TXEMA MERCADO
(EB)

- Hezkuntza, Formazioa eta Lana
- Etxebizitza eta Gizarte gaiak
- Kultura, Gaztedia eta Kontsumoa
- Euskera



JA CUESTA
(EA-EAJ)

- Obra Publikoak

GOBERNU BATZORDEA: Joxan Rekondo, Andoni Amonarraiz, Iñaki Arratibel, Antton Costa eta Jose Antonio Cuesta EA-EAJtik eta Txema Mercado EBtik. Astearteetan 17:30etan bilduko dira.

PLENOAK: Hileroko bigarren ostegunean, 18:00etan

INFORMAZIO ETA ERRESERBA EGITEKO DEITU

JAYREGI jatetxea

Oporrak eta gero, bihurtik aurrera berriro zabalik.

Menuak, karta, menu bereziak...

Jauregi Bailara, Tel.: 943 550034 / 943 330424
Hernani (Gipuzkoa)

GALARRETA JAI-ALAI!

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00 ETATIK AURRERA

ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: Uterga - Ion / Odriozola - Agirrezabala
2. partidua: Ezkurra-Lizaso / Altuna II-Altuna I- Eizagirre
3. partidua: Bereziartua - Aizpuru / Iribarren - Etxabe
4. partidua: Juaristi - Urretabizkaia II / Larrea - Aizpuru II

Kaxkoko aginte-makila Andre kaletik Kale Nagusira pasa da aurreneko aldiz

■ Karmen egunarekin urtero ospatzen diren Andre kaleko festak aurten Kale Nagusiarekin batean egin dira ■ Agustin Peña izendatu dute Kaxkoko Alkate.

ATZO Karmen eguna zen, eta urtero bezala festa eguna izan zen Hernanin. Orain arte Kardaberaz kaleko festa egiten zen atzoko egunarekin, baina, atzo lehenengo aldiz Kaxkoko jaia egin zuten, Kale Nagusia ere tartean sartuta. Hemendik aurrera, Kaxkoko bi kaletako jaiak izaki, urtero txandaka izango da festa, kale batean eta bestean. Aurten Kale Nagusiaren txanda izan da.

Festa goizean goizetik

Goizean goiz dianarekin hasi eta gaueko sardina jateraino, era guztietako ekitaldiak izan ziren egunean zehar. Umeek goizean jolasak izan zituzten eta arratsaldean txokolatada eta gaztelu puzgarria. Helduagoentzat berriz, karta jokoa eta sardina jana izan ziren. Bazkaria ere bazen eta ume-naldia ere egin zitzaizen aurten Kaxkoan komertzioa zabaldu duten dendari berriei: *Luber*, *Nectar* eta *Arkupe*, hain zuzen. Baina, ekitaldirik sinbolikoenak Kaxkoko Alkatea izendatzea izan zen.

Agustin Peña Kaxkoko Alkate Agustin Peñak jaso zuen Kaxkoko Alkate makila, Adeli Erdoziaren eskutik. Orain arte, Andre Kaleko aginpidea



Agustin Peñak jaso zuen Alkate makila Adeli Erdoziaren eskutik.

bakarrik ematen zuen Alkate makila horrek, baina, hemendik aurrera Kaxko guztiko aginte-makila izango da.

Ekitaldian jende dezente bildu zen Peña okindegi aurrean, eta Juan Bautista Biurrarenak hitz egin zuen antolatzaileen izenean. Biurrarenak bi gauza azpimarratu zituen: batetik zergatik batu diren lehenengo aldiz bi kaleak festa batean. Arrazoi nagusia da, Kale Nagusiko festak abuztuan direla, San Roke egunean, eta antolatzeke jen-

derik ez dela izaten. Bestetik, Biurrarenak azpimarratu zuen Agustin Peñak Hernanirentzat egindako lana. Adeli Erdoziak esan zituen ekitaldiko azken hitzak: "Gora San Roke, Gora Karmengo Amabirgina eta Gora Kaxkua".

Karta jokoa Andre kalean

Ohitura zaharrari eutsiz, karta jokoa izan zen Andre kalean atzo arratsaldean. Zazpi bat mahai jarri zituzten Iruntxi taberna paretik behera, eta gazte eta heldu aritu ziren jokoa. □



Umea gaztelu puzgarrian.



Bazkarian giro ederra izan zuten bildu zirenek.



YONE
boutique
Kale Nagusia 63
TERESA MAESTROK
(024 zenbakiarekin) irabazi du
TENERIFERAKO bidaiaren
Yone boutiquek eskerrak eman
nahi dizkie bezero guztiei, bere
fideltasunagatik.

HITZ BITAN



Naranco de Bulnes edo Pico Urriello ondotik pasako dira.

✓ MENDIRIZ MENDI

Picos de Europara irteera. Mendiriz Mendik irteera antolatu du Picos de Europara, uztailaren 25etik 27ra. 25ean Fuente de-tik (1078 m) Vega de Liordesera (1868 m) joango dira; 26an Vega Liordestik Vega de Urriellora (1954 m); eta 27an Vega de Urriellotik Sotres-era (1054). Izena emateko Mendiriz Menditik pasa uztailaren 21a baino lehen. Hilaren 21ean bertan bilera izango da Mendiriz Mendin, dudak argitu eta diapositibak ikusteko. Prezioa: 40 euro bazkideentzat eta 50 euro bazkide ez direnentzat.

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur. Hiru laurden plataformak kontzentrazioa deitu du gaur, kondenaen hirurdenak beteak dituzten preso hernaniarren askatasuna eskatzeko. Gaur 19:00etan Plaza Berrian.

✓ OSIÑAGA AUZOA

Bilera datorren igandean. Osiñagako auzo elkarteak bilera du, udara ondorengo lan egutegia finkatzeko. Gai ordenean daude iraileko bidaia antolatzea, udazkeneko egutegia egitea, eta bestelako gai eta arazoak eztabaidatzea. Bilera datorren igandean da, 12:00etan Arriatsu eskolan.

✓ EUSKO ALKARTASUNA

Hiri Batzarra gaur. Hernaniko Eusko Alkartasunak Hiri Batzarra du gaur, arratsaldeko 19:00etan Alkartetxean.

✓ TXOSNA BATZORDEA

Bilera San Joanetako balantzea egiteko. Txosna Batzordeak bilera du gaur, San Joanetako diru kontuak kitatu eta balantzea egiteko. Bilera gaur da, arratsaldeko 20:00etan AEK euskaltegian, Larramendi kalean.

✓ KONTZERTUA

'Maietx' kantautorea Andragoton. Andragoto Ateneoan kontzertua dago gaur. *Maietx* kantautorea ariko da, gaur 19:00etan hasita.

✓ ERREMONTA GALARRETAN

Ezkurra-Lizaso hirukotearen aurka gaur. Erremontean ikusi daitekeen partidurik onenetakoa jokatuko da gaur, Galarretan. Ezkurra-Lizaso bikoteak, Altuna II-Altuna I- Eizagirre hirukotearen aurka jokatuko du, 16:00etan hasiko den jaialdian.

✓ GALDUTAKOAK

Urrezko pultsera galdu da. Aro txiki batzuk ditu kate batekin lotuta. Kale Nagusia, Plaza Berria eta Urbieta artean galdu da. Bilatzen duenak deitu 943 33 19 05 telefonora (Eli). □

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai zentroan. 3 gela dauzka eta berritua dago. Deitu: 943 330 927

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eguneko menuak
Asteburuan afariak
Florida 54
☎ 943 33 03 97

ZINGI - ZANGA
Eguneroko menuak.
Asteburuetan afariak.

ZERBITZUAK
+ FARMAZIAK

►Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087

►Gauz: Gil
Lasarte. Nagusia 24
☎ 943 361529

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalaria anonimoak: 943 331103